

Donostia, 2016ko irailaren 23a

## IDAZKARI NAGUSIARI:

### KONTROL MOZIOA, MATERIA ORGANIKOAREN EDUKIONTZIA ERABILTZEAREN HOBARIA ORDAINTZEA DELA ETA

Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaile Amaia Martinek, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, ondorengo KONTROL MOZIOA aurkezten du, hil honetan OGASUN BATZORDEAN egindako interpelazioaren ondorioztat.

## JUSTIFIKAZIOA

Iaz hobari bat onartu zen, hondakin organikoa modu jarraituan erabiltzeari dagokiona. Hartara, hilean gutxienez lau aldiz erabiliz gero, hamaika euro ordainduko lirateke.

Iazko urtea igarota, Gobernuak zegokion ordainketa iragarri zuen joan den otsailean. Iragarpen hartaz geroztik sei hilabete igaro ziren, harik eta, azkenik, aipatu zenbatekoa pagatu zen arte.

Udal Gobernuak atzerapena zuritu du alegatuta arazoak izan dituela izena emandako herritarren kontu korranteak eskuratzeko. Arrazoibide horrek harritu egiten gaitu, kontuan izanik programan izena emateko beharrezkoa zela kontu zenbaki bat ematea.

Hondakinak birziklatu, berrerabili eta murriztearen aldeko apustuak Udal Gobernuaren premisa izan behar du. Iazko sostengagarritasun txostenak datu hauek jaso ditu: ekoiztako hondakin kantitate osoa murriztu da (2014an baino % 1 gutxiago, hau da, 1,18 kg hondakin biztanle eta eguneko); gaika bildutako hondakinen ehunekoa handitu da (2015ean sortutako hondakin guztien % 38 bildu dira gaika; 2014an, berriz, % 36). Biztanle eta eguneko 0,45 kg hondakin bildu dira; eta hondakindegira eramandako hondakinak, % 5 gutxitu direlarik, biztanle eta eguneko 0,73 kg izan dira, azken 13 urteko kantitate apalena. Guztira 21.050 familiak eta askotariko 1.559 establezimenduk parte hartzen dute berriazko edukiontzien bidez gai organikoa biltzeko sisteman. Bildutako gai organikoa 4.770.700 kg izan da, 2014an baino % 101 gehiago. Gainera, 625 etxek konpostagailu indibiduala dute, eta 85 familiak parte hartzen dute hiriko 10 auzotan gaitutako komunitate konpostatzearen programan.

Beharrezkoa da herritarrei pizgarriak ematen jarraitzea, hondakinak murriztearen eta berrerabiltzearen aldeko konpromiso garbia hartzearen. Horrenbestez, beharrezkoa da markatutako epeak betetzea eta hobaria garaiz eta egoki ordaintzea.



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

**irabazi**  
DONOSTIA

Grupo Político IRABAZI DONOSTIA Talde Politikoa

Ijentea, 1, 20003 Donostia / San Sebastián

irabazi@donostia.eus - Tel. 943481717 - www.irabazidonostia.org

---

Horrexegatik aurkezten dugu ondorengo

## KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio ordain dezala datorren urteko lehen hiruhilekoan gai organikoaren edukiontzia erabiltzeari dagokion hobaria.

Izpta.: Amaia Martin Garin,  
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.